

HAA plana
(Harrapatzea, Antzutzea eta
Askatzea)

Leioan katu-koloniak kudeatzeko

1. Sarrera.

Etxe-katuari buruzko lehendabiziko datu historikoak antzinako Egipton erregistratu ziren (k.a. 3.000 urte inguruan). Egiptoarrek miresmena sentitu zuten katuaren figurarekiko, seguru asko, animalia hark jendartearen aldeko zerbitzua egiten zuelako, hau da, aletegiak karraskarrietatik libre uzten eta uztak babesten zituztelako. Animalia ehiztari erabilgarria izatetik etxe-animalia izatera pasa zen berehala, eta pasioz maitatu zuten, baita jainkotu eta tronuratu ere. Lege zorrotzen bidez babesten zituzten katuak; hain zen horrela, non katu bat berariaz hiltzeak heriotza zigorra eragin baitzezakeen. Katuari jai eta bakanalak eskaintzen zitzaizkion Egipton, eta ohiz kanpoko pribilegioak zeuzkan; esate baterako, familia batean katu bat hiltzen zenean, egiptoarrek bekainak arradatzen zituzten dolo-seinale gisa.

Erromatarrengandik iritsi zen, seguru asko, etxe-katua Europara, haiek ere estimu handitan baitzeukaten animalia. Esan daiteke, bada, katua izurrien kontrako tresna erabilgarri izateaz gain, etxe barruko figura miretsia ere bazela. Etxe-katuak Europa osoan zehar hedatu zirelarik, horiek babesteko legeak aldarrikatu ziren eta azkar lortu zuten jendartearen oniritzia.

Erdi Aroa iristearekin batera heldu ziren katuentzako garairik zailenak. Izan ere, ezjakintasunaren eta sineskerien ondorioz, animalia hauek sistematikoki hiltzen hasi ziren herritarrek. Nahikoa zen katu bat edukitzea, pertsona bati sorginkeria leporatzeko; eta, katua beltza bazen, gainera, saihestezina zen zigorra. Ehunka mila pertsona eta milioia katu hil zituzten modu basatian, torturak ere jasaten zituztelarik. Mende ilunenetan zehar, katuen jazarpena nabarmena izan zen Europa jainkojale osoan (hainbeste, non harrigarria baita animalia erabat desagertu ez izana), batez ere, Ingalaterran, Alemanian eta Frantzian.

Egiptoar eta erromatarren artean ez bezala, katuen jazarpen zoro horrek arratoien alde egin zuen batez ere; azkar baino azkarrago ugaritu ziren, eta zelai, herri zein hiriak inbaditu zituzten, baita elikagai ugari suntsitu eta gaixotasunak hedatu ere, izurria kasu.

XIX. mendean, europarrak konturatzen hasi ziren zein garrantzitsuak ziren katuak. Mende hartan, lagun egiteko animalia gisa tratatzen hasi ziren katua, eta haren presentzia eta errespetua handituz joan zen etxeetan, harik eta gaur egun duen garrantzia izatera iritsi zen arte.

1.1 Kale-katuen koloniak

Baina katuak ez dira soilik gure etxeetan bizi; kale-katu ugari ere bizi dira gure inguruan; aske bizi ohi dira, baina gure hirietako ingurunean integratuta, gizakiok ematen diegun janariaz elikatuz. Kale-katu talde bat leku baten inguruan bizi direnean, hau da, elikagai nahikoa ematen dien gune batean bizi direnean, sortzen dira hirietako katu-kolonia deritzenak.

Oro har, katu-koloniak gu ohartu gabe bizi dira, eta ez dute arazorik sortzen, batez ere, gizakiei muzin egin eta, oro har, gauez bizi nahiago izaten dutelako. Hala eta guztiz ere, bizilagunak kexatu egiten dira batzuetan, zarata egiten dutelako (araldia oso zaratsatu eta nekagarria izan daiteke) edota kalte materialak eragiten dituztelako (harramazka ateetan, jantzietan, etab.).

Kale-katuak bizimodu basatira itzuli diren animaliak dira, neurri batean; izan ere, galdu edo abandonatutako etxe-katuen ondorengoak izaki, aire zabalean edota biltegi, fabrika zein eraikin abandonatuetan bizitzen ikasi dute. Hiri-inguruan zein landa-inguruan erraz egokitzen dira, eta, besteak beste, kalezuloetan, aparkalekuetan edo patioetan ezartzen dute beren bizitokia. Gehienetan, kale-katuak ez dira erabat basatiak, jendearen beharra baitute oraindik elikatzeko, nahiz iturria katuen zaintzailea izan, zeinak egunean behin edo bitan janaria ematen baitie, nahiz jatetxe baten kanpoaldean dagoen edukiontzia, zakarrontziak edo antzekoa izan. Kale-katu gutxik lortzen dute ehizaren bitartez soilik bizirautea.

Hainbat faktore kontuan izan behar dira zehazteko katu bat zein neurritara arte den basatia. Alde batetik, animaliaaren adinak nabarmen eragiten du horretan; katakumeak 6 edo 7 aste baino gehiago baditu, sozializatzeko aukerak murriztu egiten dira eta, hortik aurrera, katu gero eta «basatiagoa» izango da. Bestetik, kontuan izan behar da katuaren aurretiko zenbat belaunaldi bizi izan diren gizakien etxeetatik kanpo; hala, adibidez, 5 belaunaldiz kalean bizi izan den katu-sendi batean jaiotako katu batek «basatiagoa» izateko joera izango du etxe-kateme batengandik jaio den batek baino. Halaber, gizakiekiko harremanaren intentsitatea ere alderdi garrantzitsua da, eta, hala, katuek gizakiekin zenbat eta harreman gehiago izan, orduan eta jendekinagoak izango dira.

Azkenik, harremanean nahasita dauden norbanakoen izaerak ere eragiten du horretan, eta baliteke belaunaldi askoan kalean bizi izan den katu-sendi batean jaiotako katu bat, kumetan gizakiekin harremanik izan ez duena, pertsona batekin harremana izatera iristea, baldin eta gizakia behin eta berriro saiatzen bada, pazientziaz.

Onartu beharra dago, ordea, katu bat benetan basatia bada, aukerarik errukiorrena izango dela aire zabalean bizitzen jarrai dezan uztea. Horrelako katuak etxekotzen saiatzea azeria etxe-animalia bilakatzen saiatzea bezalakoxea da; baliteke arrakastarik izatea, baina denbora eta pazientzia handia behar izango da eta inoiz ez da erabat etxekoa izango. Bestalde, horrela eginez gero, animalia nahi duen bezala bizitzeko aukera kentzen egongo ginateke.

Asmo oneko pertsona askok, kale-katu bat etxera eramanda hura «salbatu» egiten dutela sinetsita, animalia ohe azpian ezkutatu eta etengabe beldur izatera kondenatu besterik ez dute egiten. Hortaz, hobe da aske eta zoriontsu bizitzea, nahiz eta arriskutsua izan. Gauza bera gertatzen da, baina alderantziz, hainbat urtez etxe batean bizi izan ondoren kalean abandonatzen diren katuekin. Gehienek oso txarto pasatzen dute, hil ere egiten dira, eta gutxi batzuek lortzen dute bizitza berri horretara egokitzea.

Kale-katuen artean ere aldagaiak daude, horien ezaugarriak ezberdinak direlako, eta, hortaz, erakunde ezberdinen ardurapean geratzen dira, ezin baitira guztiak berdin tratatu:

- **Katu basatiak:** sozializatu gabeko katuak dira eta ez dute harrapatuak edo manipulatuak izaterik uzten; ondorioz, zaila izaten da etxe batean maskota gisa hartzea. Jabe ezagunik gabeko animaliak dira (horrek ez du esan nahi inork zaintzen ez dituenik). Horrelako katuak landa-inguruko eta hiri-inguruko katu basati gisa defini daitezke. Animalien presentzia eta ongizatea, baita eragin lezaketen enbarazu, kalte eta abarrak Udalaren erantzukizuna dira, baita animalien kudeaketa egokia ere; baina inoiz ez dira animalia abandonatuak izango balira bezala kudeatu behar.

- **Katu alderraiak:** etxe edo leku itxi batean konfinatuta ez daudenak dira, eta, ondorioz, alde batetik bestera aske ibiltzeko aukera dutenak. Animalia horiek jabeak dituzte eta mikrotxip baten bidez identifikatuta egon behar dute; hala, jabeei eskatu beharko zaizkie animalia horien zaintzaren zein eragin litzaketen enbarazu edota kalteen erantzukizuna.

- **Galdu edo abandonatutako katuak:** jabea duten edo izan duten katuak dira, abandonatu egin dituztelako nahiz galdu egin direlako. Hasieran sozializatzen ohituta zeuden, baina, denboraren poderioz, basati bihurtuz joan dira eta kale-katu izatera pasa dira. Animalia horiek galdu edo abandonatutako beste edozein animalia bezala kudeatu behar dira, eta animaliak jasotzeko udal zerbitzuaren esleipena jaso duen enpresaren ardurapekoak dira. Horrelakoetan, ezinbestekoa da animaliak basati bihurtzeko daitezkeen saihestea, eta, horretarako, animaliak jaso eta horientzako etxe bat (aurretik zeukatena edo, ezin bada, berri bat) bilatzeko sistema eraginkorra sortu behar da. Hori lortzeko, adopzioa sustatzeko kanpainak antolatzen dira, eta zerbitzuaren udal mailako lizitazioak egiten, pleguetan horrelako animaliak adoptatzeari balioa emanez.

1.2 Kolonien kudeaketa etikoa: HAA metodoa

Kale-katu ugari dagoenean eta herritarrak kexatzen hasten direnean, agintariak neurriak hartu behar dituzte, betiere oso kontuan hartuta tokiko ordenantzak, eskura dauden baliabideak, kale-katuen populazioaren proportzioa (sozializatuak edo alderraiak), komunitateak katuei dagokienez duen sofistikazio-maila eta kexen ezaugarriak.

HAA siglen bidez ezaguna den prozedura (Harrapatzea, Antzutzea eta Askatzea; ingeleseko *TNR: Trap-Neuter-Return*) kolonia bateko katu guztiak edo gehienak harrapatzean datza, horiek antzutu eta, ondoren, beren ingurunera itzultzeko.

Antzututako katuak markatu egin behar dira, hurrengo kanpainetan berriro ere harrapatu eta albaitariarenera eraman ez ditzaten, horrek estres handia eragingo bailioke animalari. Aipatu arrazoiak gain, katuak markatuz gero, erraz identifika daiteke kolonian sartu berri den edo abandonatua izan den animalia bat.

Kudeaketa-programak honako alderdi hauek barne hartu behar ditu:

- 1) Katu-kolonia identifikatzea eta berau osatzen duten katuen errolda egitea;
- 2) Tranpak egitea;
- 3) Ar zein emeak antzutzea;
- 4) Markatzea;
- 5) Beren lekura itzultzea;
- 6) Jatekoa, babeslekua eta ura ematea;
- 7) Zaintzaile batek -koloniaren arduradunak- jarraipena egitea. Gune pribatuetan elikatze-puntuak jartzeko, jabeekin nolabaiteko hitzarmena egin beharko da.

Kolonia bat murriztu egingo da, soilik, katuak antzutu egiten badira; horretarako, kolonia bateko katu guztiak harrapatu behar dira, eta azkar identifikatu behar dira kolonian sartzen diren katu berriak. Horrek esfortzu handia behar du. Koloniak egoki kudeatzeko, gainera, ezinbestekoa da honako hauek biltzea: kolonia zaintzeaz arduratuko den pertsona bat, elikatzeaz arduratuko den pertsona bat edo batzuk —katuen osasun-egoera zainduko dutenak—, kale-katu berriak antzutuko dituzten pertsonak, eta etxe-katuak zein sozializa daitezkeen kumeak (oro har, 8 aste baino gutxiago duten katuak -Passanisi & Macdonald, 1990-) kaletik kentzeaz arduratuko direnak.

Naturak bere bidea egin dezan uzteak katu gehiago jaiotzea eragiten du, baita, besteak beste, hilkortasun handiagoa eta kexak zein osasun-arazoak ugaritzea ere. Leioan, hainbat pertsonak kudeatzen dituzte horrelako koloniak, batzuetan elkarte baten inguruan antolatuta eta besteetan era espontaneoan; baina guztiek beren denbora eta dirua inbertitzen dute kale-katuei ahalik eta arreta eta zaintza onenak ematen saiatzeko.

Aurretik adierazitakoa kontuan hartuta, Leioako Udalean animaliak babesteko arloak erabaki du HAA protokoloa martxan jartzea, udalerrian katu-koloniak kontrolatzeko metodo «eraginkor eta etiko» bakarria delakoan eta, gainera, OMEk gomendatzen duen bakarria delako.

1.3 Leioako egungo egoera

Kudeaketa-plana martxan jartzeko, ezinbestekoa da kudeatu nahi diren elementuen errealitatea eta lortu nahi den helburua ahalik eta zehaztasun handienaz ezagutzea. Ondo ezagutu behar dira katuek eragiten zein pairatzen dituzten arazoak, horrela, neurri egokiak ezarri eta helburuak lortu ahal izateko.

Kolonia edo elikatze-puntu bakoitzean HAA metodoa martxan jarri ondoren izan litezkeen ondorioen kalterik gabe, eta gutxi gorabeherako datuak ahalik eta osatuenak izan daitezten lortzeko, 2016. urtean Leioako hainbat boluntariok, Agacale Elkartearen bitartez, landa-lana egin zuten zenbait hilabetez Leioako zaintzaileekin batera. Horretarako, datu-base bat sortu zuten (hilabetez hilabete eta urtez urte elikatuz joan dena), eta, hari esker, jakin ahal izan da gutxi gorabehera zenbat katuk osatzen duten kolonia edo elikatze-puntu bakoitza, horiek zein sexutakoak diren, zenbat dauden antzututa... Gainera, arduradun bakoitzaren identifikazioa, telefonoa eta posta elektronikoa ezarri ahal izan zaie.

Leioan, eta beste edozein herritan, zenbat katu-kolonia dagoen zehazki jakitea zaila bada ere, aipatu lanaren bitartez sortutako errolda egun dagoen tresnarik osoena da katu-koloniak egoki kudeatzea ahalbidetuko duen estrategiarik egokiena diseinatzeko.

2016. urtetik jaso diren datuei esker, eta boluntarioekin zein Leioako Udalean etxe-animaliak jasotzeko zerbitzuaren enpresa esleipendunarekin elkarlanean, Osasun Sailak hiriko koloniak antzutzeko prozesu antolatua bultzatu zuen guneka, sektoreko beste enpresa batzuekin lankidetzan eta diru-kutxa publikoen bidez finantzatuta; betiere, irizpide jakin batzuen arabera.

Horrekin lotuta, HAA programaren hasierako fasea hasi zenetik, boluntarioek tarte horretan beren kontura egindako esku-hartzeak kontuan hartu gabe, 289 katu antzutu dira -arrak eta emeak-, urtez urte honela banatuta:

2016. urtea: 50 katu.

2017. urtea: 63 katu.

2018. urtea: 111 katu.

2019. urtea: 35 katu.

2020. urtea: 30 katu.

Zentzu horretan, Udalbatzan pentsatu zuten, HAA metodoa udalerrri osoan garatzen zenez, garrantzitsua zela alde zuzenetik katuek antzutzeko zenbait kanpaina egitea, kumaldien ugaritze kontrolgabea saihesteko, eta, hartara, zaintzaileekin harremanetan jarri ziren, programan sartzeko prest eta aukeran ba ote zeuden jakiteko.

Agerian geratu da kolonia bateko katuen % 90 antzututa daudenean erroldak behera egiten duela, eta portzentajea % 70 eta 90 bitartekoa denean, ordea, erroldaren kopuruak bere horretan eusten diola. Portzentaje horretara iritsitakoan jotzen da kolonien egoera egokitzat, neurrigabe ugaritu daitezten saihesten baita eta, ondorioz, ingurunearen buxadura eta osasungarritasun-baldintzen narriadura ekiditen

Katuen arteko liskarrak ere saihesten dira horrela, bereziki araldian, eta, hortaz,

desagertu egiten dira, baita, zaratari lotutako arazoak eta katuen markatzeen kiratsak. Argudio hori jarraiki, kolonia bat egonkortze bidean dagoela uste da animalien % 50 antzututa daudenean. Animalia-aren bat antzututa dagoela ikusita, ondoriozta dezakegu zaintzaileek ezagutu egiten dituztela dagoeneko HAA programaren onurak eta kudeaketa-programa etiko bat abiatu dutela. Inolako kontrolik ez duten gainerako kolonietan, premiazkoa da informazio eta kontzientziazio lana egitea, bertan ere kudeaketa-programa bat abia dadin.

2- Jarduketa-plana.

2.1- Kudeaketa-planaren xedea.

Katu-koloniak kontrolatzeko Kudeaketa-plan honen xede orokorra da animaliak ahalik eta gehien babestea eta horien ongizatea bermatzea. Horretarako, erantzukizun handiagoa eta jokabide zibikoagoa bultzatuko da herritarren artean, maskotak bereziki, eta animaliak oro har, babestu eta zaintzeko kontzientzia zabaltze aldera. Aipatu helburua lortzeko, honako ekintza hauek abiatuko dira:

2.1.1.- Esparru arauemailea eta irizpide teknikoak ezartzea, honako esku-hartze hauek garatzeko:

- Leioa udalerrian animalien babes eraginkorra ahalbidetuko duten neurriak sortu eta ezartzea.

- Etxe-animaliak hil eta abandonatzen diren kasuak murrizteko neurri eta programak diseinatu eta aplikatzea.

2.1.2.- Animaliak babesteko elkarrekin eta bestelako kolektibo batzuekiko koordinazio eta lankidetzaren sustatzea, baita etxe-animaliei arreta emateko sektoreko enpresen artekoa ere, horien esku-hartzea funtsezkoa baita prozesu hau eraginkorra izan dadin.

2.1.3.- Tartean nahasitako talde sozialak sentsibilizatzeko programak diseinatu eta aplikatzea: jabeen elkargoak, hazkuntzan diharduten pertsona eta erakundeak, albaitari-klinikak, etab.

Eta, oro har, Leioa erreferente bilakatzea, etxe-animalien kudeaketa eta babesari dagokionez.

2.2- Kudeaketa-planaren helburuak.

Honako hauek dira Leioan katu-koloniak kontrolatzeko Kudeaketa-planaren helburu zehatzak:

- HAA programa baten bidez katu-koloniak babestea eta kudeatzea, behar besteko lege-babesaz; eta gune publiko edo pribatu jakin batzuetan janlekuak ezartzea, dagokion kolonia elikatzen eta kudeatzen laguntzeko.

- Gaixorik dauden edo, edozer arrazoiren ondorioz, lesioren bat jasan duten kale-katuei albaitarien arreta arin eta eraginkorra ahalbidetzea, sendatu ondoren beren jatorrizko lekura itzuli ahal izan daitezen baldintza egokietan.

- Horrelako koloniek bizilagunen komunitateetan eragin ditzaketan trabak zuzendu eta minimizatzea.

- Bularreko katakumeentzako harrera-plana ezartzea, boluntariotza sozial eta konprometituen bitartez, amarekiko harremana galdu duten katu jaiotza berrien bizitza salbatu ahal izateko, harik eta autonomia maila jakin bat lortzen duten arte, eta ondoren (gehienetan) adopzio arduratsua bideratu ahal izateko.
- Aldizkako kanpainen bitartez, katu jendekinen adopzio-planak abiatzea, adopzio horiek erakargarri egingo dituzten pizgarri fiskalekin konbinatuta.
- Denboran aurrera ere programa mantendu egingo dela bermatzea, sortuz doazen beharrezko aurre egiteko behar besteko urteko aurrekontu-hornidura ezarrita.

2.3- Jarduketa-eremua.

Leioako udalerrria izango da planaren jarduketa-eremua.

2.4- Jarduketaren lege-esparrua.

2019ko apirilko osoko bilkuran, **Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza** berria onartu zuen Leioako Udalak, zeinaren honako agindu hauek nabarmen baitaitezke:

9. artikulua - Kaleko animaliak

1.- *Animaliek gizakioi eta ondasunei eragin liezazkiguketan eragozpenak edota arriskuak ekiditeko, herritarrek udal osasun-zerbitzuei jakinaraziko diete kaleko animalien edo abandonatutako animalien presentzia.*

2.- *Debekatuta dago bide publikoan eta orubeetan hegazti, txakur, katu eta kaleko beste edozein animaliarri janaria ematea hartarako berariazko baimen gabe.*

3.- *Hiri-habitatego edo kontrol gabeko animalia-espezieen ugalketak hala justifikatzen ez direnean, udal agintariek beharrezko neurriak hartuko dituzte animalia horien populazioa kontrolatzeko.*

4.- *Bidean edo espazio publikoetan berriki jaiotako katakume kumaldia aurkitzen duten herritarrek ez dituzte katakumeak hartuko; horrela jokatzeko ez badute, katakumeak ordenantza honek ezarritako baldintzetan zaintzeaz arduratu beharko dira.*

10. artikulua - Kaleko katuak kudeatzeko programa

«1.- Leioako Udalak kaleko katu-koloniak sortzea sustatu ahal du, egokitzat jotako plan, metodo edo prozeduren bitartez. Kolonia horiek animalia talde kontrolatuak izango dira, behar bezala antzutatukoak, ezarritako hiri espazio publikoen barruan, eta betiere irabazi asmorik gabeko erakunde eta herritarren entitateen kontrolpean; horretarako udalerrian dauden kolonien erregistroa egingo da, eta kolonia bakoitzaren daturik garrantzitsuenak jasoko dira.

Halaber, Leioako Udalak jabeen erkidego pribatuekin kolaboratuko du prozedura horiek abiarazteko, kasuan kasuko lankidetzaren bitartez.

Alde batetik, kolonia «elikatzeko pertsona» figura ezarriko da, eta koloniako kideei

baldintza egokietan bizitzeko beharrezko mantenua emateaz arduratzeko eskumen eskusiboak izango ditu; beste aldetik, koloniaren «pertsona arduradunaren» figura sortuko da, eta aurreko figura izango duen pertsona bera izan daiteke edo ez. Bi kasuetan, Leioako Udalak administrazio baimen bat entregatuko dio eta bertan ezarriko dira dagokion jarduera bide publikoan garatu ahal izateko betekizunak, baldintzak, eskubideak eta betebeharrak, tartean kolonia zuzen kudeatzeko Udaletik ezarriko diren protokoloak bete beharra ere izango da.

Horrez gain, «pertsona kolaboratzailearen» figura ere sortuko da; ez da ezein kolonia zehatzi atxikita egongo, eta, kasuan kasuko koloniaren pertsona arduradunaren eta, nolana ere, udal agintaritzaren eskudunaren baimena jaso ondoren, proposamena egin ahal-ko du behar duen katu bati (arra zein emea) premiazko tratamendua emateko onartzeko.

Baimena pertsonala eta besterenezina izango da, eta indarrean egongo da pertsona titularrak eskatutako betekizunak betetzen dituzten bitartean eta baimena eman izana eragin zuten betebeharrak eta baldintzak betetzen diren bitartean.

Salbuespen modura, aldi baterako baimenak eman ahalko dira bi figuren kasuan, kaltetutako kolonia behin betiko osatu arte, eta udal agintaritzaren eskudunetik ezarritako baldintzak betetzearen mende egongo da baimenaren indarraldia.

2.- Berriki jaiotako katakumeak, Udal Zerbitzuak jasotakoak, animaliak babesteko elkarteetara bideratu ahalko dira, udalak lankidetzaren hitzarmenak sinatu baditu horiekin, baita herritarrek boluntario izateko programen bitartez ere, inguruabarrekin bat etorritik biziraun eta haztea ahalbidetzen badute, eta hasierako asteetan hazkuntzaz arduratuko direnak Udal Zerbitzuaren adopzio zirkuituan sartzeko moduan egon arte.

3.- Udal Zerbitzuak jasotako kale katuak, istripu bat izan badute, zerbitzura atxikita-ko albaitariak diagnostikoa eta hasierako laguntza lanak egin ondoren, aurreko atalean aipatutako erakunde zibikoetara eramango dira zaindu ditzaten erabat sendatu arte; erabat sendatzen direnean, udalerrian dauden koloniaren batean sartuko dira, ordura arte ez bada horrelakorik egin, jarraipena eta kontrola egite aldera.

Kalean jasotako kale katu hilak erre egingo dira».

Gainera, artikulatuaren beste atal batzuetan zehazten da jokabide horiek urratzeak dakarren zehapena eta, bereziki, 29.1.p) artikuluan arau-hauste arin gisa sailkatuta daude honako hauek:

«Kaleko katuen hiri-koloniak kudeatzeko lana egitea zailtzea edo eragozte, ordenantza honen 10. artikuluan aipatutakoa, udal baimen baten babespean egonez gero eta baimena indarrean badago».

2.4- Leioan HAA plan bat ezartzeko protokoloa.

Kalkuluen arabera, HAA metodologia martxan jarrita berehala egonkortu egiten da koloniaren tamaina, baldin eta heldu ugalkorren % 70 gutxienez antzutzen bada. % 100etik hurbil dagoen antzutze-mailak populazioa pixkanaka murriztea eragingo du. Gainera, nabarmen murrizten dira kale-katuen inguruan egin ohi diren kexak (marrakak, liskarrek eta estalketak eragindako zalapartak, edota ar ugalkorren kiratsa -beren

esparrua txizaz markatzen baitute-). Kontuan izan behar da, halaber, antzututako katuek noraezean ibiltzeko eta nabarmentzeko joera txikiagoa dutela, eta, kaleetan animalien joan-etorriak murriztuta, murriztu egiten direla, baita, ezbeharrak eta kexak. Horrela, errazagoa izaten da galdu edo abandonatutako animaliak bereiztea, zeinak udaleko jasotze-zerbitzuaren eskumenekoak baitira, eta, ondorioz, horien lana ere erraztu egiten da. Hala eta guztiz ere, karraskarien kontrol naturala egiten jarraitzen dute, eta hori abantaila baliotsua da bereziki hiri-inguruetan.

2.4.1- Koloniaren errolda Leioako Udalean:

Kaleko kolonia guztietan egoten da katuei jaten ematen dien pertsonarik; lehendabizi, haiekin harremanetan jarri behar da, haiek ezagutzen baitituzte katuak ondoen, eta, horregatik, esan diezagukete zenbat katu dauden, edota emerren batek kumerik duen (une horretan ez eramateko).

Komunitatean bizi diren pertsonekin edo komunitatearen inguruko bizilagunekin harreman ona edukitzea. Badago antzutzearekin pozik dagoen katuen zalerik, baina baita katuak eraman eta itzuliko ez duzula pentsatzen duenik ere. Katuen kontrako jarrera duenik ere izango da; eta, ados ez egon arren, horrekin jarduten jakin behar dugu, malgutasunez, izan ere, eztabaidatzeak edo pazientzia galtzeak jabetza-gunetik botatzea eragin lezake. Ekina izan beharra dago, eta azaldu behar da kolonietan jaiotzak kontrolatzeak aukera emango duela arazoa desagerrarazteko, animalia horiek hil behar izan gabe. Era berean, herritarrei ulertarazi behar zaie katuak behar-beharrezkoak direla hiri-inguruetan arratoien izurriak errotik ezabatzeke.

Katuak elikatzen dituzten pertsonen laguntzaz, eguneratu egingo da kolonia bakoitzeko errolda eta, 2016. urte bukaeratik garatutako landa-lanean eskuratutako datuak aprobetxatuta, katuen ohituren gainean galdetuko da: zer ordutan ikusi ohi dituzten, zer ordutan ematen zaien jatekoa, etab.

Koloniak zaintzen dituzten pertsonak hezten saiatzea da, beharbada, alderik zailena: animalia errazago harrapatzeke laguntza eskatzea, katuak harrapatuko diren egunetan tranpa-kaiola jarri arte jatekorik ez emateko eskatzea, edota jatekoa egunean behin soilik emateko eskatzea (gose direnean irteteko); hori guztia, jatorduei eta zein egunetan janaririk ez jartzeari dagokionez ondo koordinatuta. Ulertarazi behar zaie kalean edo komunitateetan elikatzeke hobea dela pentsu lehorra, ez baitu zikintzen ez usaintzen; garrantzitsua dela ingurua garbi edukitzea, jendeak katuen kontrako jarrera har dezan saihesteko; elikatzeke gunea jendearengandik ezkutatuta egon dadin saiatu behar dela, protestarik ez egoteko. Hala, bizilagunek gunea babestu eta ezkutuetan pentsua eta ura jartzeko toberak edukitzeke baimena ematea da egokiena, baita euria denerako edota negurako babeslekua uzteke eskatzea ere. Horrekin lotuta, Udalak hainbat janleku ditu stock-ean, kolonia bat era eraginkor eta efizientean kudeatzeko egokitzat jotzen diren tokietan jartzeko.

Kolonia jakin batean abandonatutako katuak badaude, eta jendekinak badira, etxe bat bilatu ahal zaie.

Udalak koloniaren fitxa-eredua emango du, gutxienez, honako datu hauek jasota: altaren data, harremanetarako pertsona (arduraduna), kokapena, errolda sexu eta adinaren arabera (helduak, kumeak), eta zikiratuta edo antzututa dauden ala ez. Bertan jaso beharke dira, baita animalien bajak eta altak, baita burutu diren esku-hartzeak ere. Era berean, «Elikatzeko pertsona» figura ezarriko da, arduradunari laguntzeko eta, behar den

kasuetan (urrunaldia edo gaixoaldia) hura ordezkatzeko. Eguneraketak Udalarari jakinarazi beharko zaizkio aldeztu aurretik ezarritako aldizkakotasunaz, kolonien erroldan jasotako informazioaren arabera. Jaso dituzten tratamenduak, erditzeak eta garrantzitsua den bestelako edozein inguruabar ere jaso ahal izango da fitxan.

Tarteka eragozpenen bat eragin badezake ere (bandalismoa, etab.), Leioako Udalak baloratu egingo du, hala badagokio, katu koloniak seinaleztatzea, batez ere herritarrek oro har eta inguruko bizilagunek bereziki jakin dezaten udalak babestu egiten dituela hiriko katu-koloniak.

2.4.2- Katu-kolonia batek bete behar dituen baldintzak.

Kokapena:

a) Gune publiko batean badago, elikatze-puntuak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Hirigunetik kanpo egotea, hau da, pertsonen joan-etorria dagoen lekuetan ez jartzea (espaloiak, pasabideak, hiribideak...).

- Ibilgailuen trafiko-bideetatik urrun egotea.

- Janlekua Udaleko Lorezaintza Zerbitzuaren mantentze-lanak jasotzen dituzten parke edo lorategietatik kanpo jartzea.

- Pertsonak edo ibilgailuak gune edo jabeen erkidego pribatuetara sartzeko edo horietatik irteteko bideetatik urrun egotea (atariak edo garajeak).

b) Gune pribatu batean badago, elikatze-puntua ezarriko den lekuari dagokion jabeen erkidegoaren baimena izan beharko da.

Elikatzea. Pentsu lehorra jarriko da beti, leku babestu batean eta, betiere, lekua garbi utzi beharko da. Katuak leku berean elikatuko dira horiek harrapatzeko eta kolonia behatzeko aukera errazteko; hala, ordutegiaren errutina bat ezarri beharko da, koloniako kideak hartara ohitu daitezten eta elikagaiak ahalik eta denbora laburrenean egon daitezten bertan, balizko kanpo-kutsadurak saihesteko, beste animalia batzuek ez jateko, pertsonak bertara ez hurbiltzeko, etab.

Egoera puntualetan soilik erabili ahal izango dira jaki hezeak, besteak beste, animalia harrapatzeko edo sendagaiak emateko.

Edozein kasutan, katuek jaten amaitutakoan, ingurua txukun eta garbi utzi beharko da. Ur freskoa utzi behar zaie beti.

Birkokatzeko protokoloa: Kolonia bat birkokatu egingo da, soilik, baldin eta animalien bizitza arriskuan badago edo, araudiaren arabera, aske dauden animalien presentziarekin bateraezina den leku batean badago. Edozein kasutan, protokolo egokia bete beharko da kolonia beste leku batean jartzeko. Salbuespenezko neurria izango da.

2.4.3- Tranpatze-metodoak. Tranpa-kaiola bidez harrapatzea.

Ahal dela, azaro hasieratik martxo bukaerara bitarte harrapatu eta antzutuko dira katuak, eta urtearen gainerakoan esku hartzea saihestuko da, nahiz eta bestelako esku-hartze puntual batzuk ere adostu daitezkeen, baldin eta dagokion koloniaren onerako bada. Katu bat harrapatu eta, edozein arrazoi dela medio, ebakuntza egin baino lehen askatzen bada, oso zaila izango da berriro harrapatzea, berehala ikasiko baitu tranpa-kaiolez ez fidatzen (batez ere emeek). Tranpa-kaiolen mekanismoa itxi egiten da katua barruan sartu eta dagokion puntuan zapaltzen duenean. Egiaztatu behar da atea ixteko mekanismoak ondo funtzionatzen duela, oso etsigarria baita ikuste katua tranpa-kaiolan sartu, jan eta lasai-lasai alde egiten duela.

Lehendabiziko katuak izaten dira harrapatzen errazenak, ezustean harrapatzen dituelako egoerak. Hortaz, lehenengo txandan ahalik eta katu gehien harrapatzen saiatu behar da, kaiolarekiko mesfidantza hasi baino lehen. Arrak, oro har, lasai-lasai sartuko dira kaiolan, jatera; emeekin, ordea, zailagoa izango da.

Ez da ar eta emeen arteko ezberdintasunik egingo, baina lehentasuna izango dute umedun dauden emeek, salbu eta ernaldia aurreratuta badago; ez dira harrapatuko, halaber, erditu berri diren edota bularreko kumeak dituzten emeak. Ernaldia oso aurreratua egon baino lehen harrapatzen saiatu behar da katemea; izan ere, al baitariak antzutu egingo dituen arren, baliteke 3-5 egunez ospitalean egon behar izatea. Katuak harrapatzeko, usain gogorra duten jakiak erabiliko dira, hala nola sardinak edo elikagai ketuak, eta, janari zatitxoak erabiliz, kaiolara arteko bidetxoa egingo da, animaliak erakartzeko. Kaiolaren punturik sakonenean janari zanpatua jartzea komeni da, katuak oso abilak baitira eta, horrela egin ezean, atea jaiste eragingo duen gailuari sakatu gabe hartuko bailukete janaria. Kaiola zoru egonkorrean dagoela eta kulunkatzen ez dela bermatu beharko da, zeren, zapaltzean mugitu egiten bada, hainbat katu ez baitira kaiolan sartuko. Egun bat edo bi beharko dira katuak kaiolaren barruan jatera ohitzeko (kaiola desaktibatuta dagoela) eta, horrela, bertan lasai-lasai jan eta irtetera ohituko dira.

Tranpa-kaiolan janaririk jartzen ez den egunetan oso garrantzitsua da inguruan (200-300 metrotara) egon daitezkeen jatekoak jasotzea; izan ere, katuak kaiolatik kanpo erraz aurkitzen badu jatekoa, berezko duen mesfidantza dela eta (tranpa-kaiola ezezaguna baita), ez du kaiolan sartzeko gogorik izango.

Bestalde, ahal dela, koloniak elikatzeko erabiltzen duen leku berean jarri beharko da kaiola, oso agerikoa ez den leku batean, lapur dezaten saihesteko, baina katua jatera irteteko behar besteko distantzian. Katua tranpa-kaiolan sartu eta atea itxi denean, azkar hurbildu beharko da, eta eskuoihal edo tapaki batez estali, katua geldi gera dadin; bestela, min hartuko du ihes egiten saiatzean. Ondoren, ahalik eta azkarren eraman behar da antzutera.

Katuari alta eman ondoren, leku berean askatu behar da, eta zaintzaileari esan lehenengo egunean behatu dezala, dena ondo dagoela ziurtatzeko.

Arrazoi higieniko-sanitarioak direla medio, komeni da katuarekin kontaktua izan ondoren arropa garbitu eta aldatzea.

2.4.4- Albaitariak katuak antzutzeko protokoloa.

Katuak antzutzeko, honako esku-hartze hauek egin beharko dira:

1. Azterketa fisikoa egitea eta azterketan antzemandako patologiei dagokien tratamendua ematea. Txipa duen begiratzea, abandonatutako animalia ote den egiaztatzeko.

2. Barne zein kanpoko parasitoak hiltzea. Felv/ testa aplikatzea, soilik adopzio programan sartuko diren animaliei, adoptatzaileak hala eskatuz gero.

3- Antzutzea eta belarria markatzea.

Antzutzeko betekizunak:

- Anestesia orokorra.
- Berez xurgatzen den jostura.
- Katemeen kasuan, ahalik eta ebaki txikiena egin behar da, ahal dela alboko ebakuntzan, horrela saihestu egingo baitira sabel-etenak (edonola ere, ez dira bestelako ebakuntza motak baztertzeko).

4. Kumeak eta heldu sozializatuak adoptatzea.

5. Adoptatu ezin diren katuak koloniara itzultzea.

2.4.5- Belarria markatzea.

Animalia oraindik anesthesiaren eraginpean dagoenean, horiek identifikatu egingo dira, nazioartean kale-katuak identifikatzeko ezarritako protokoloaren arabera; hau da, ezker belarran (arrei) edo eskuin belarran (emeei) 1/2 cm-ko mozketa egingo zaie. Prozedura erraz eta humanitarioa da, eta katua antzutzeko anestesiatuta dagoenean egiten da. Katuari ez dio inolako kalterik egiten, eta prozedura eraginkorra da, dagoeneko kontrola jaso duenez ez baita berriro harrapatu beharko.

Hala eta guztiz ere, animalia markatzeko protokoloa aldatu ahal izango da, baldin eta animalia osotasun eta duintasuna errespetatzen duten bestelako hautabideak egokiagoak direla uste bada.

2.4.6- Ebakuntza ondoko garaia.

Kirurgiaren ondoren, transportin edo kaiola garbi batean lehengoratzeko aukera izan behar dute animaliek. Komeni da kaiola edo transportinak oihal batez estaltzea, katuak lasai egon daitezen. Ebakuntzaren ondoren, eta katua askatu baino lehen, bertan egongo da hamar orduz gutxienez, anesthesiaren efektua erabat pasatzen den arte. Oro har, ez dauka zentzurik ebakuntza ondoko egonaldia luzatzeak, katuaren estresa eta, ondorioz, bigarren mailako konplikazioak agertzeko aukera handitu ez daitezen. Kasu berezietan soilik (umedun dauden emeak, katu gazteak, muturreko baldintza klimatologikoak, etab.) luzatuko da ebakuntza ondoko egonaldia, baldin eta horrela lehengoratze-prozesua hobea izango dela uste bada. Horrelakoetan, udal zerbitzuei eman beharko zaie egoeraren berri. Animaliek, beren koloniara itzuli baino lehen, gutxienez gau bat pasako dute albaitaritzaz-zerbitzuaren instalazioetan, nahiz eta egonaldiaren iraupena albaitarietara beraiek ezarriko duten kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

2.4.7- Katu-kolonien arduradun eta elikatzaileak.

Boluntarioek oinarritzko erantzukizuna dute populazioaren osasunaren jarraipena

egiteko orduan, eta horien lankidetzaz funtsezkoa da katuak antzutzeko prozesuetan.

Leioako Udalak akreditazioa emango die kolonien arduradun edo elikatzaile izatea eskatzen duten pertsoneri, betiere, Udalean bertan erroldatuta badaude. Akreditazio-txartelari esker, boluntarioek koloniak mantentzeko egitekoak bete ahal izango dituzte, eta beren jarduna egiaztatu ahal izango dute udaltzaingoaren edota bestelako segurtasun kidegoen aurrean, baita partikularren aurrean ere, baldin eta haserrealdi edo eztabaidak saihesteko balio badezake, Udalak HAA programa babesten duela egiaztatzen.

Akreditazio-sistema: Kolonien arduradunek eta elikatzaileek konpromisoa hartzen dute unean-unean indarrean dagoen Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza ezagutu eta betetzeko (horrela izan ezean, kontuan izan beharko du bizilagunek salatu egin dezaketela, edota udaltzainek isuna jar diezaioketela), baita hemen azalduta dagoen HAA protokoloa ezagutu eta betetzeko ere. Akreditazioa eskuratzeko idatzizko konpromisoa adierazi beharko da, eta, konpromiso hori bete ezean, akreditazioa baliogabetu eta kenduko zaio boluntarioari. Aldian-aldean bilerak egingo dira zaintzaileek konplitu behar dituzten betebeharrak gogorarazteko.

Era berean, Udalarekiko elkarlanean aritu beharko dute boluntarioek, erabiltzen den gunean higie eta segurtasun baldintza egokienak bermatzeko, hala bertan bizi diren bizilagunei zein inguruko erabiltzaileei dagokienez nola katuak dagokienez.

2.4.8- Leioako Udalak bere gain hartu dituen konpromisoak.

Leioako Udalak, arduradun eta elikatzaileei aipatu akreditazioa emateaz gain, bere gain hartuko ditu harrapatutako katuak antzutzeko, parasitoak kentzeko, txertatzeko eta markatzeko beharrezkoak diren gastuak, baita, hala badagokio, beharrezkoak diren irteera guztiak ere, betiere Plan honen baldintzak betez egiten badira.

Albaitariak gomendatutako beste edozein proba egiteko, Leioako Udaleko animaliak babesteko arloko arduradunarekin adostu beharko da alde aurretik. Jaulkitako fakturaren hartzaile bakarra etxe-animaliei arreta emateko sektoreko enpresa izango da (albaitari-klinika, -ospitalea edo antzekoa). Faktura ez zaio, inola ere, partikular bati egingo; hortaz, arduradunak edo elikatzaileak bere kargura egin duen gasturen bat berreskuratu nahi badu, aipatu erakundeetako batekin adostu beharko du alde aurretik, adierazitako ondorioetarako faktura egokitu ahal izateko.

Animaliak Plan honetan jasota ez dagoen esku-hartzeren bat behar badu, haren ardura duten albaitariak esku-hartze hori justifikatzen duen txostena aurkeztu beharko dute eta, hala badagokio, barne hartu beharko dituzte bai balizko alternatibak, bai kostu osoaren aurrekontua.

Era berean, Leioako Udalak, aurrekontuaren arabera ahal duen neurrian, lursailaren egoerari eta koloniaren ezaugarriei egokitutako janlekua emateaz gain, tranpa-kaiolak eta transportinak emango dizkie arduradun eta elikatzaileei, katuen harrapaketa kudeatzeko, baita elikagaiak (pentsu lehorra) eta Plan hau martxan jartzeko beharrezkoak diren gainerako tresnak ere.

2.4.9- Protokoloari atxikitako albaitari-klinikak.

Leioako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu ahal izango du Bizkaiko Albaitarien Elkargo Ofizialarekin, Leioan zein inguruko udalerrietan dauden eta hala eskatzen duten albaitari-klinikak Leioan katu-koloniak kudeatzeko protokoloaren parte-hartzaile gisa akreditatzeko. Klinikak antzutzeez eta gainerako manipulazioez arduratzeko konpromisoa hartzen dute, HAA protokolo honetan xedatutakoaren arabera, baita antzute-orriak sinatzeko konpromisoa ere, zeinak baliagarriak izango baitira Udalaren dirulaguntzak justifikatzeko. Klinikak, halaber, eskubidea dute Leioako Udalaren HAA planarekiko atxikipenaren publizitatea egiteko.

Kale-katuen, katu alderraien, abandonatuen eta galdutakoen artean bereizteko, eta, oro har, HAA protokolo honen funtzionamendu egokia ahalbidetzeko, protokoloari atxikitako albaitari-klinikak identifikazio-txipa jartzeko aholkatuko diete etxe-katuen jabeei, nahiz eta Leioako Udalaren Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzak hartara derrigortu ez.

2.4.10- Kolonien jarraipena.

Kolonia bakoitzeko arduradun eta elikatzailak arduratuko dira koloniaren jarraipena egiteaz eta, oro har, immigrazioa, lekuaren zein animalien egoera orokorra, ale berrien iritsiera eta aldean arteko komunikazioa kontrolatzeaz, eta, hala dagokionean, unean-unean Leioako Udalarekin elkarlanean diharduen animaliak babesteko elkartearen laguntza jasoko dute, dagokion inguruan esku hartzeko lehentasunak adostu beharko dituztelarik.

Horretarako, tresna digitalak erabili ahal izango dituzte, hala nola, whatsapp-a edo antzekoak, informazioa denbora errealean trukatzeko eta urtean zehar egiten diren antzute-kanpainen lana koordinatzeko.

2.4.11- Kontzientziazio eta informazio kanpainak.

HAA planaren garapenean, informazio eta kontzientziazio kanpainak egingo dira, azaltzeko zertan den antzute-kanpaina babesten duen udal araudia eta zeintzuk diren hura ezartzearen onurak. Kanpainen parte hartu ahal izango dute kolonietako arduradunek eta elikatzailak, animaliak babesteko elkartetako kideak eta animaliak jasotzeko udal zerbitzuari atxikitako langileak, baita Udalarekin elkarlanean aritzen diren beste erakunde batzuetako kideak ere. Halaber, oso garrantzitsua da horrelako kanpainen Udaltzaingoa ere inplikatzeko, horrek lagundu egiten baitu bizilagunen kontzientziazioa sendotzen.

3. Ondorioak

Leioan katu-koloniak kudeatzeko planteamendu zorrotza ezarri behar da. Katu-koloniak kudeatzeko horrelako metodoetan, koloniak izan behar du jarduketa-unitatea, ez katuak. Ez du ezertarako balio katuak antzuteko funts publikoak erabiltzea, koloniako

animalien % 70era gutxienez iristen ez bada; horrela egin ezean, dirua alferrik xahutzea eragingo bailuke. Udala ezin da ibili urterik urte katuak antzutzeko dirua eta ahaleginak xahutzen, emaitzak lortuko direla bermatu ezin bada. Horretarako, komeni da honako irizpide hauek praktikan jartzea:

1- Egonkortze bidean dauden koloniak dituzten auzoetan eta inguruetan antzutzen hastea komeni da, aldameneko kolonietako migrazioek haren egoera kalte dezaten saihesteko. Hala eta guztiz ere, premiaz esku hartu beharko da antzutu gabeko katuen presentzia nabarmena dagoen inguruetan, etorkizun hurbilean kumaldiak kontrolik gabe ugaritzea eragin dezaketelako.

2- Ez da beste kolonia bateko animaliak antzutzera pasako, harik eta lehendabiziko koloniako kideen % 70 gutxienez antzutu den arte.

3- Salbuespenez soilik, eta behar bezala arrazoituta, aldatu ahal izango dira irizpide hauek, kexak eta salaketak kudeatzeko, besteak beste.

4- Sei hilabeterik behin, katu-kolonien errolda eguneratu beharko da, kudeaketa-protokolo honen ondorioak ebaluatu ahal izateko.

-----oo-----